

PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA PUBLIZITATEAREKIN, GERNIKA PASEALEKUKO AISIALDIKO GUNEA OLANA BATEZ ESTALTZEKO ZIMENDATZE ETA EGITURA LANAK EGITEKO OBRA KONTRATUA EGITEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA

2009ko ekainaren 10eko batzarraldian Gobernu-batzordeak onetsia.

Idazkaria

LIZITAZIOAREN EZAUGARRIAK	
Helburua	GERNIKA PASEALEKUKO AISIALDIKO GUNEA OLANA BATEZ ESTALTZEKO ZIMENDATZE ETA EGITURA LANAK
Aurrekontua BEZ GABE	276.531,95 €
BEZ zenbatekoa	44.245,11 €
Aurrekontu OSOA (BEZ BARNE)	320.777,06 €
Egiteko epea	12 ASTE
Kontratatze modua	Lehiaketa Irekia
Behin-betiko Fidantza	Esleipen-aurrekontuaren % 5
Enpresa Sailkatzea	SAILKAPENIK GABEA
Erantzukizun Zibileko Asegurua	300.000 €

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
I.- KONTRATUAREN EDUKIA.....	3
1.- KONTRATUAREN HELBURUA	4
2.- EGITEKO EPEA	4
3.- KONTRATUAREN PREZIOA	5
4.- FINANTZAKETA	5
5.- ORDAINTZEKO MODUA	5
6.- PREZIOEN BERRIKUSPENA	6
7.- BERMEAK	6
8.- KONTRATUAREN GAUZAPENA	6
9.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK	7
10.- KONTRATUA BETETZEN DUEN BITARTEAN KONTRATISTAK HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN GAINEAN DUEN ARDURA.....	8
11.- KONTRATUAREN ALDAKETAK	8
12.- OBRAREN ONARPENA ETA BERME EPEALDIA	9
13.- EZ BETETZEEN ONDORIOZ KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK a) Kontratua betetzeko epeei dagozkienak. b) Zerbitzuen gauzatze partzialei dagozkienak	
14.- KONTRATUA ETETEKO ARRAZIOIAK	
15.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK	
16.- OBREN GIDARITZA	
17.- OBRAREN ZUINKETA EGIAZTATZEA	
18.- ENTSEGU ETA FROGAK	
19.- NEURKETAK, BALORAZIOA ETA KONTURAKO ABONUA	
II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA	
20.- ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA a) AURRE-KONTZEPTUAK i) Behea eta Behe ertaina ii) Behe ausartegiaren susmoa iii) Balorazio metodoak iv) Balorazio irizpideak	
21.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA	
22.- PROPOSAMENEN AURKEZPENA ETA PARTE HARTZAILEEKIN NEGOZIATZEA	
23.- ESLEIPENA, FORMALIZATZEA ETA GASTUAK	
III.- IZAERA, ZUZENBIDE ARAUBIDEA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	
24.- IZAERA ETA ZUZENBIDE ARAUBIDEA	
25.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA	
26.- JURISDIKZIO ESKUDUNA	

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Plegu honen arabera egiten den kontratuaren helburua, ASIER HORMAECHE EGUREN eta ARITZ ETXEBERRIA ERRASTI Arkitektoek (GRUPO BIARK STUDIO SLP) idatzitako eta 2009ko EKAINEKO data duen eta Gobernu Batzordeak 2009ko EKAINAREN 10ean onartutako proiektuan zehazten duten moduan, GERNIKA PASEALEKUKO AISIALDIKO GUNEA OLANA BATEZ ESTALTZEKO ZIMENDATZE ETA EGITURA LANAK EGITEKO OBRA egitea izango da

Lana idatzitako proiektuari jarraiki gauzatuko da eta proiektua osatzen duten dokumentu guztiek eta kontratua formalizatzen den unean esleipendunak bere adostasuna erakusteko sinatu beharko duen Baldintza Administrazio Partikularren Plegu honek kontratuzko izaera izango dute.

Aipatu kontratazioak lanen kontratu administrazio izaera izango du eta Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko 30/2007 Legeak (LCSP) arautuko du.

Lanen ordainetan, Beasaingo Udalak kontratistari behar bezala eginiko lanari dagokion zenbatekoa ordainduko dio, aurretik hitzartutako prezioaren arabera.

2. EGITEKO EPEA

Murrizgarri izan daitezkeen alternatiben kalterik gabe eta aurreikusitako urterokoei eutsiz, lanak gauzatzeko gehienezko epea 12 ASTEKOA izango da, Zuinketa-Egiaztapen akta sinatzen den hurrengo egunetik hasita, halaber, aipatu akta gehienez 7 EGUNEKO epearen barruan sinatu beharko da, kontratua formalizatzen den egunetik kontatzen hasita.

Gehienezko gauzatze epe partzialak, kontratistak aurkeztutako lanen Programa onartzean ezartzen direnak izango dira.

Kontratuzko epea, indarrean dagoen legedian ezartzen diren egoera eta baldintzak betetzen direnenean luzatu ahal izango da soilik.

Kontratistaren atzerapentzat hartuko da behin aipatu epea igarotzen denean, Administrazioaren alde aurretiko oharpenaren beharrik izan gabe.

Urriaren 24ko 1627/1997 ED-aren 14.artikuluaren arabera, segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileak edo Zuzendaritza Fakultatiboko kide batek erabakita edo 31/1995 Legearen 44. artikuluen arabera Lan eta Gizarte Segurantzaren ikuskapenaren eraginez obra bere osotasunean edo lana erabat etengo balitz eta azken honetan arrazoia kontratistak segurtasun eta osasun neurriak ez betetzea balitz, obra edo lana etenik egongo litzatekeen epea zenbakarria izango da gauzatze epeari dagokionez eta azken honen ebazpena egiteko arrazoi nahikoa izan daiteke, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen (LCSP) 196, 197 eta 220 artikuluei jarraiki.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

GERNIKA PASEALEKUKO AISIALDIKO GUNEA OLANA BATEZ ESTALTZEKO ZIMENDATZE ETA EGITURA LANAK aipatutako proiektuaren Aurrekontuan zehaztutakoa izango da gehienez oinarritzko lizitazio prezioa, Plegu honen hasieran finkatuta gelditu den moduan. Kopuru hori lehiakideek behar bezala

hobetua izan daiteke eta eskaintza bakoitzaren zenbatekoan Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) EZ dagoela sartuta ulertuko da, baina bi kontzeptuek bereizita agertu beharko dute.

Aurkeztutako proposamenetan, ez kontratuaren prezioa (BEZ barne) bakarrik, baizik eta kontratatutako obra gauzatzeko kontratistak egin beharko dituen gastu zuzen eta zeharkako guztiak ere barneratuta egongo direla ulertuko da.

Kontratuaren prezioan txertatuko dira unitatearen prezioak KONTUSAILKA ETA UNITATEEN PREZIOAK BEHAR BEZALA BEREZITA, eta hauek izango dira gauzapenean zehar kontuan hartuko direnak.

4. FINANTZAKETA

Administrazioak emandako aurrekontuaren zenbatekoa **276.531,95 € (320.777,06 €-koa BEZ BARNE)**

Udalak, kontratua esleitu aurretik, "1.5000.643.432.10.02,2008 azpiegiturak eta urbanizazioa: GERNIKA PASEALEKUKO aisialdi gunea estaltzeko " aurrekontu kontusaila nahikoa diruz hornituko du kontratu horretarik ondorioztatzen diren obligazioei aurre egiteko.

5. ORDAINTZEKO MODUA

Gauzaturako lanen zenbatekoa Obra zuzendaritzak bidalitako hileroko ziurtagirien bidez egiaztatuko da, eskaintzaileak berak idatzitako balorazioaren zerrenda oinarritzat hartuta.

Bidalitako ziurtagirien ondorioz eginiko ordainketek, kontura egindako ordainketa kontzeptua dute, azken neurketan sortzen diren zuzenketa eta aldaketan baitan egonik, inolaz ere, barneratzen dituzten lanen onarpena eta harrera suposatzen ez duelarik.

Plegu honen kontratuaren formalizazio klausuran ezarritako baldintzak bete arte ezingo da inolako ziurtagirik bidali, eta ondorioz ezingo da inolako ordainketarik egin.

Kontratistak, aurrez idatziz eskatu ondoren, egiten dituen instalakuntza eta material pilaketa edo obrari lotutako makinaria zamatsuaren pilaketak bezalako prestamen ekintzengatik dagokion zenbatekoaren konturako ordainketa jasotzeko eskubidea izango du, Herri Administrazioen Kontratuen Legeak ezartzen dituen baldintza, berme eta mugekin.

6. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan ez da prezioen berrikuspenik egingo, espedientean egiaztatzen denez.

7. BERMEAK

Kontratuaren behin behineko esleipendunak, hartutako betebeharrak beteko dituela bermatze aldera, esleipenaren zenbatekoaren %5aren baliokidea (BEZa kontuan hartu gabe) den behin-betiko berme bat eratzera behartuta dago, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (LCSP) 83. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Aipatu bermea eratzeko epea **HAMAR astegunekoa** izango da, kontratugilearen profilean behin behineko esleipena argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan ezarritako edozein bitarteko erabiliz era daiteke.

Bermearen itzulketa, erabatekoa edo hala badagokio partziala, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90. artikuluan ezarritakoari jarraiki egingo da, behin bermearen epea amaitu ondoren eta esleipendunak kontratuzko betebeharrak bete ondoren.

8. KONTRATUAREN GAUZAPENA

Lan kontratuen gauzapenari, kontratua formalizatzen den egunetik **ZAZPI EGUNEKO** epearen barnean burutu beharko den Zuinketa-Egiaztapen aktaren sinadurarekin ekingo zaio.

Kontratua kontratistaren arrisku eta kontura beteko da eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obran gerta daitezkeen galera, matxura edo kalteengatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 214. artikuluan aurreikusten diren ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Edozein kasutan, lanak Plegu honetan aintzat hartzen diren klausuren baitan, hari atxikitako zehaztapen teknikoaren baitan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ezarritakoari eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoari zehatz-mehatz jarraiki egingo dira. Kontratu hau, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren baitan garatuz beteko da, hala, Administrazioak gaitasun hauek baliatuko ditu idatziz nahiz ahoz.

Kontratistari edo haren baitako pertsonari egotz dakizkiokeen ekintza edo ez betetzeengatik kontratuaren jardun egokia arriskuan jarriko balitz, Administrazioak kontratuaren jardun egokia eskuratu edo berrezartzeko beharrezko ikusten dituen neurriak hartzea eska dezake.

9. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK OROKORRAK

Kontratista, kontratu honen xede diren lanetan erabiltzen dituen langileei dagokienez lan arloan, Gizarte Segurantzaren, eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzera behartuta dago, Administrazioa ez betetze honen erantzukizunetik at geratzen delarik. Enpresa esleipendunak kontratuan aurreikusitako epealdiaren barruan gauzatu eta entregatu beharko dizkio proiektatutako lanak BEASAINGO UDALARI.

Lanak onartutako Proiektuari eta Baldintzen Pleguari, aplikazio orokorreko araudiari eta betiere kontratatutako lanei izaeraz dagozkien arau teknikoak jarraiki burutu beharko dira. Edozein kasutan, obrako Zuzendariak interpretatutakoaren arabera kontratistari emandako jarraibideei jarraitu beharko zaie. Ez obrako Zuzendari Teknikoak, ez kontratistak, ezingo dute kontratatutako lanetan aldaketarik sartu edo gauzatu, aurrez eskumeneko kontratazio organoaren onarpena jaso gabe.

Kontratista esleipenduna izango da lanen garapen egokiaren eta Proiektuan aurreikusitako irtenbideak burutzearen arduraduna, lanak behar bezala bukatu artean.

Jarraian, kontratistak bere kabuz zaindu beharreko hainbat arlo adierazten dira, orientabide moduan:

- Topografia osagarria eta zuinketazkoa.
- Kaltetutako zerbitzuak hautematen eta atzera egitea programatzea.
- Aipatu zerbitzuen birjartze proiektua eratu eta berau bere titular eta erabiltzaileen lankidetzan eta adostasunean gauzatzea.
- Proiektuaren irtenbide teknikoak lurraren benetako baldintzetara egokitzea, bereziki ikuspuntu geoteknikotik.
- Hala badagokio, ezponden eta zimendatzeen egokitzapen eta birdoitzea.
- Arrasen egokitzapena eta egituren birzehaztaperen geometrikoa, zoru bakoitzaren lodierari egokituta.
- Behin behineko sarbide eta pasabideak egitea eta lanak burutzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren trafiko desbideraketak egitea, behar bezala seinaleztatuta, dispositibo egokiekin, semaforoak ere erabiliz, behar balitz.
- Egitura frogen proiektu, gauzapen eta ebaluazioa.
- Kalitate kontrola.
- Segurtasun eta Osasun Plana.
- Administrazioaren ekimenez, kontratista esleipendunari eskatzen zaizkion lan osagarri oro egitea obraren kontratuan agertzen diren baldintzen arabera eta indarrean dagoen legediaren testuinguruan, esate baterako, sarbideen berritze eta egokitzapena, eta hala badagokio, argiteria azpiegituren obra zibila edo bestelako zerbitzuak.

Gainera, kontratistak obrak egiteko betebeharra izateaz gain, obraren zaintzeko betebeharra du aharik eta obrak onartutzat jotzen diren arte. Era berean, obrak onartu bitartean, esleipendunak bertan dauden ondasun eta lurra zaintzeko ardura izango du.

10. KONTRATUA BETETZEN DUEN BITARTEAN KONTRATISTAK HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN GAINEAN DUEN ARDURA

Kontratistak, lanen gauzaperetik, zuzenean edo zeharka, eratorzen diren hirugarrenei eragindako kalterik ez egiteko beharrezko neurriak hartuko ditu, eta bera izango da lanen gauzaperetik eratorzen diren kalte eta galera ororen erantzule bakarra.

Kontratista, lana gauzatzen den denboran, bere arduraren dauden pertsonen ekintza, ez betetze edo arduragabekeriaren ondorioz edo obraren antolaketa, zainketa edo seinaleztaperen eskasaren ondorioz edozein pertsona, jabetza edo zerbitzuri, pribatua ala publikoa, eragin dakiokkeen kalte eta galera ororen erantzule izango da.

Enpresa esleipendunak uneoro aseguru kontratu bat izango du aipatu kalte edo galerei erantzuteko, plegu honen hasieran adierazten den "KONTRATUAREN EZAUGARRIEN KOADROAN" ezartzen den zenbatekoaren gutxieneko estaldurarekin.

Administrazioak egoki ikusten duenean, administrazioa bera izan daiteke kontratatutako lanen gauzapeanaren ondorioz hirugarren batek pairatutako kalte edo galeren erantzule zuzena, eta kontratatutako enpresari gastua jasanarazi ahal dio, gertakizun hori jakinarazi ostean.

Egindako gastuak jasanarazteko, Administrazioak enpresari zor zaion edozein kopuru atxikiz edo fidantza moduan ordaindu den Abala erabiliz jardun dezake, berak nahieran.

Kontratistaren kontura eta bere baitakoak izango dira, egindako gestioak, gastu guztien ordainketak, tasak, ariel, e.a.; eta era berean, bere kontu eta baitakoak izango dira, funtzionamendurako alta eta baimena, sare eta zerbitzuetarako loturak eta behin behineko eta behin-betiko hartuneak eskuratu ahal izateko, eta orokorrean, instalakuntzen funtzionamendu egoki eta legezkoa izateko, eskumeneko Erakundeei aurkeztu beharreko proiektuak idatzi eta oniritzia jasotzea.

11. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Interes publikoko arrazoiak direla medio, Administrazioak kontratua moldatu ahal izango du, aurreikusi gabeko gertaerei erantzuteko, kontratistak inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango ez duelarik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 220.e) eta 217 artikulutan ezartzen denaren kalterik gabe.

Kontratuan ematen diren moldapenek bertan agertzen ez diren laneko unitate berriak sartzea eragiten dutenean, moldapen horien prezioak Kontratazio Organoak finkaturikoak izango dira eta kontratistak onartzen ez badu, Kontratazio Organoak beste enpresari batekin kontratatu ahalko ditu finkatuko lituzkeen prezio beretan edo berak egin ahal izango ditu zuzen-zuzenean.

12. OBRAREN ONARPENA ETA BERME EPEALDIA

Obrak bukatzen direnetik gehienez hilabete bateko epearen barruan haien onartzeko ekitaldi formal eta positiboa egingo da, eta bertatik dagokion akta jasoko da.

Halaber, onarpen formala egiten den egunetik hasita URTE BATEKO epea ezartzen da Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean aurreikusitakoaren araberrako bermetzat. Aipatu epealdian zehar kontratistaren ardura izango da obren zainketa, kontzeptu honengatik inolako kalte-ordain edo ordain eskubiderik izango ez duelarik.

Dena den, behin berme epealdia gainditu ondoren kontratistak kontratua ez betetzearen ondorioz eraikuntzan sortutako ezkutuko akatsen eraginez obrak kalte handiak izaten baditu, kontratista izango da kalte eta galera hauen erantzule hamabost urteko epean, obren onarpena egiten denetik hasita. Behin epealdi hau inolako kalte edo galerarik gabe igaro ondoren, kontratistaren erantzukizuna erabat desagertuko da.

Berme epealdia amaitu ondoren eta obrak behin-betikoz onartuta, kontratua betetzat joko da eta berme moduan ordaindutako fidantza itzuliko da.

Horretarako, obren Zuzendari fakultatiboak, ofizioz edo kontratistak ahala eskaturik, obren egoerari buruzko txosten bat eratuko du, berme epealdia bete aurreko hamabost egunen barruan. Hau aldekoa izango balitz, kontratista erantzukizun guztietatik at geratuko da, LCSP-ren 219. artikuluan ezarritakoaren salbuespenarekin, ondorioz, berme modura ordaindutako fidantza itzuli edo ezeztatuko da, kontratua likidatuko da, eta hala badagokio, ordaintzeke dauden betebeharrak ordainduko dira. Txostena aldekoa izan

ez eta hautemandako akatsak lana gauzatzekoan egindako huts egiteen ondorio balira eta eraikitakoaren erabilerari egotz ezingo balira, bermearen epealdi barruan, Zuzendari fakultatiboak kontratistari jarraibide egokiak emango dizkio eraikitakoa behar bezala konpontze aldera, horretarako, epe bat emango dio eta denbora horretan lanen zainketaren ardura izaten jarraituko du, berme epealdia luzatzeagatik inolako kopururik jasotzeko eskubiderik gabe.

13. EZ BETETZEEN ONDORIOZ KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK

a) Kontratua betetzeko epeei dagozkienak

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, kontratua betetzeko epealdian atzerapenik izango balu, bai guztizko epean, eta hala badagokio, epe partzialetan, Administrazioak berak nahieran erabaki dezake, bermearen galera ezarriz edo eguneroko zigorrak ezarriz, 0,20 € kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko proportzioan.

Atzerapenak eragindako zigorrek kontratuaren prezioaren %5eko multiploa hartzen duten aldiro, Kontratazio Organoak kontratua eteteko ahalmena izango du, edo eraikuntzarekin jarrai dezatela erabakitzea, zigor berriak ezarrita.

b) Zerbitzuen gauzatze partzialei dagozkienak

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, kontratuan zehazten diren zerbitzuen gauzatze partzialak beteko ez balitu, Administrazioak, berak nahieran erabaki dezake, kontratua etenaz edo kontratuaren prezio osoaren %10aren baliokide den zigorra ezarriz.

Zerbitzuak zati batean betetzen ez baditu, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren %10aren baliokide den zigorra ezarri ahalko du.

14. KONTRATUA ETETEKO ARRAZOTIAK

Kontratistak, plegu honetan edo kontratuaren gainerako dokumentuetan derrigortzat jotzen den edozein betebeharrak ez betetzea, kontratua eteteko nahikoa arrazoi izan daiteke.

Lan kontratua eteteko arrazoiak dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206 eta 220 artikuluetan ezartzen direnak.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Hona administrazioak izango dituen eskumenak: kontratua interpretatzea, hura betetzeak sor litzakeen zalantzak argitzea, interes publikoko interesak direla medio hura aldatzea eta, hura etetea erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea. Hori guztia, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean ezarritako baldintza eta ondorioen barruan eta horien arabera.

16. OBREN GIDARITZA

Obrak, obrako Zuzendari fakultatiboak Proiektuaren gainean egiten duen interpretazio teknikoaren ondorioz kontratistari emandako jarraibideen arabera burutuko dira eta kontratistak derrigorrez bete beharko ditu.

"PROIEKTUAN" agertzen diren lanak gauzatzeko, Obra Gidaritza, Segurtasun eta Osasun koordinazio, Ingurumenaren Jarraipenerako Plana betetze eta kalitate kontrolaren Plana betetze lanak, BEASAINGO UDALAK eginkizun horietarako kontratatutako profesionalak egingo dituzte.

Obrako Zuzendari fakultatiboak kontratistari ematea egoki ikusten dituen agindu, jarraibide eta jakinarazpenak Agindu-Liburuan emango dira idatziz, sinadura bidez baimenduta. Jarraibideak ahozkoak izango balira, idatziz berretsi beharko dira ahalik eta lasterren, bi aldeentzat lotesleak izan daitezen.

Kontratistak Agindu-liburua eta Intzidentzien-liburua, aurretik haien zuzenmenak egin ondoren, uneoro obran eskuragarri izateko betebeharra du eta Zuzendaritza Fakultatiboak eskuragarri izango ditu obraren garapenean zehar ematen diren bisita, intzidentzia eta aginduak bertan adierazteko. Kontratistak bere kabuz edo bere baitako pertsona baten bidez jarraibide horiei dagozkien hartu-agiriak sinatzeko betebeharra du.

Onarpen ekitaldian Agindu-Liburua behar bezala beteta aurkeztea eskatuko da eta Administrazioaren eskuetara pasako da behin onarpena eman ondoren.

17. OBRAREN ZUINKETA EGIAZTATZEA

Zuinketa-Egiaztapen akta gehienez **HIRU EGUNEKO** epearen barruan sinatuko da, kontratua formalizatzen den egunetik hasita.

Obren zuinketa egiaztapena esleipenduna edo bere ordezkaria bertan egonik burutuko da. Aipatu epearen atzerapena kontratua eteteko nahiko arrazoi izango da.

Obra ezin da hasi Zuinketa-Egiaztapen akta idatzi gabe edo akta horretan sendotzat hartzen diren erretserbarik ageri bada, halakoetan, obren hasiera bertan behera geratuko da edo behin-betiko geldiarazteko erabakia hartuko da.

Administrazioak obren hasiera sei (6) hilabete baino gehiagoko epez bertan behera uztea, kontratua eteteko nahikoa arrazoi izango da.

Era berean, obra ezingo da hasi, aurretik, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera Segurtasun eta Osasun Plana onartu gabe.

18. ENTSEGU ETA FROGAK.

Obrako Zuzendariak edozein unetan, obrako material eta unitateen entsegu, froga eta azterketak ziurtatzea agindu dezake, kasu bakoitzean egoki ikusten duenean eta kalitate kontrolaren programan agertzen direnean. **Kontzeptu honen ondorioz ateratzen diren gastuak kontratistaren kontura joango dira, gehienez kontratuaren prezioaren %2ra iritsi arte.**

Gainera, obrak amaitzean beharrezkoak diren frogak egingo dira eta froga hauen emaitzei dagozkion akta idatziko da.

Frogen proiektua, gauzapena eta ebaluazioa langile espezialduak egingo dute, betiere Obrako Zuzendariak kasu bakoitzean finkatzen dituen baldintzen arabera.

19. NEURKETAK, BALORAZIOA ETA KONTURAKO ABONUA.

Obrako zuzendaritzak aldizka egindako obra unitateak neurtuko ditu.

Neurketa hori oinarritzat hartuta, jatorrizko zerrenda balioztatua idatziko da, proposamenari dagozkion unitateko prezioak aplikatuz.

Egindako lanen zenbatekoa kontratistari egiaztatuko zaizkio hilero, Obrako Zuzendariak bidalitako Ziurtagirien bitartez.

Kontratatik Ziurtagiriaren adostasuna eman dezake bertan sinatuz. Ziurtagiriekin ados ez badago egoki ikusten dituen arrazoibideak adieraziko ditu idatziz.

Ziurtagiria onartu ondoren, kontratatik haiek obraren behin-betiko likidazioaren kontura abonatzeko eskubidea izango du, legez aurreikusitako epeen barruan.

Hala badagokio, aurrekontuan barneratzen diren oroharreko partidak "justifikatzeke" izango dira eta Proiektuaren Aurrekontuko unitateko soldaten bidez ordainduko dira edo haietatik kendutako unitateen bidez, eta bakar-bakarrik azken aukera bezala, prezio berriei buruzko legera joaz.

Justifikatzeke dauden oroharreko partidak ordaintzeko, eta unitateko soldaten aplikazioa egin ezin denean, Administrazioak hirugarrenei fakturatzeko aukera balia dezake, aldez aurretik obrako Zuzendaritza fakultatiboak baimendu eta onartu ondoren. Fakturatutako zenbateko likidoa kontratatik ordainduko du eta Administrazioak itzuliko du, hurrengo hilabetean bidaliko den Obrako Ziurtagirian barneratuta.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

20. ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA

Kontratua prozedura irekian eta PREMIAZKO IZAPIDEAREN bitartez esleituko da (LCSPren 141. artikuluari dagokion 122. artikulua).

Honakoak dira kontratuaren esleipenerako oinarri moduan erabili beharreko irizpideak, garrantziaren eta ematen zaien haztapenaren arabera goitik behera emanak:

1. Prezioa 2. Obraren azterketa. Lanen programaketa.	Otik 40 puntura Otik 60 puntura
---	------------------------------------

Parte hartzaileekin egiten diren negoziazioak aipatu irizpideei buruzkoak edota kontratuari dagokion edozein arlo ekonomiko, tekniko edota logistikori buruzkoa izan daiteke.

Dena den, adierazitako edozein irizpide baloratzeko orduan, proposamena bere osotasunean aztertu ondoren, obra behar bezala betetzen dela hobekien ziurtatzen duten bermeak hartuko dira kontuan bereziki.

Horretarako, enpresa lizitatzaillearen edo lizitatzaileren historialari dagozkion berme orokorrak nahiz eskaintzen den obrari dagozkion berme zehatzak baloratuko dira.

Prezioari dagokionez, zentzuzko eraikuntza kopuruetara murrizten duten eskaintzak aukeratzeko joera izango da.

Prezioari dagokionez, eskaintzen diren baldintza zehatzetan lehiaketa berak obrarako eman dezakeen baliora gehien hurbiltzen diren eskaintzak aukeratzeko joera izango da.

a) AURRE-KONTZEPTUAK

i) Behea eta Behe ertaina

Proposamen ekonomiko ertaina izango da, proposamen ekonomiko onartuen batura zati proposamen onartuen kopurua.

Ehun eta proposamen ekonomiko bakoitzak hartzen duen ehunekoaren arteko aldea, eskaintza motarekiko, izango da proposamen horren behea.

Proposamen ekonomiko ertainaren beheari, behe ertaina esaten zaio.

ii) Behe ausartegiaren susmoa

Behe ertaina HAMABOST puntu baino gehiago jaisten duten proposamenak, ausarkeriazko jaitsiera arriskutsutzat hartuko dira eta 0 puntu emango zaizkie. Hala ere, udal teknikarien iritziz, BAREMO HAU GAINDITZEN DUTEN LIZITATZELEEI ARGIBIDEAK ESKATU ONDOREN, aurkeztutako eskaintzak behe ausartegia EZ direla justifikatzen bada, nahiz eta behe ertaina 15 puntutan gainditu, hauek EZ dira ZERO punturekin puntuatuko, baizik eta Pleguaren balorazio irizpideen arabera dagozkien puntuekin.

iii) Balorazio metodoak

Hurrengo atalean adierazten diren balorazio irizpideak, eskaintzak modu diferentzialean puntuatzeko pentsatuta daude.

Esate baterako, esperientzia profesionala baloratzekoan, eskaintza egiten duten guztiek dagokion sailkapena izanik gauditua dutela suposatzean, ez zaie gehienezko puntuaketa emango, zero puntukoa baizik, gehienezko puntuaketa eskaintza interesgarrienei emango zaielarik.

iv) Balorazio irizpideak

(1) Proposamen ekonomikoa 40 puntu

Atal honetako balorazioa egiteko, Zerbitzu Teknikoak, beharrezkoa ikusten badu, alde zuzenetik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Eskaintza guztiak kopuru txikienetik handienara ordenatuko dira batez besteko eskaintzarekiko. Batez besteko eskaintza hau gauditzen duten eskaintzen kenketa egin ondoren ondorioztatzen den balio negatiboa ez da kontuan hartuko.

Batez besteko eskaintzari gehien hurbiltzen zaion eskaintzari A eskaintza deituko zaio, eta 40 punturekin baloratuko da. Beste edozein eskaintza, B izendatua, horrela baloratuko da:

B puntuazioa = 40 - 2,5 x (A Behea - B Behea) A deituriko eskaintza baino kopuru txikiagoa duten eskaintzen kasurako.

B puntuazioa = 40 - 2,5 x (A Behea - B Behea) A deituriko eskaintza baino kopuru handiagoa duten eskaintzen kasurako.

(2) Obraren azterketa. Lanen programaketa. 60 puntu.

Udaletxeko Zerbitzu Teknikoak lanen programaketari dagokionez aurkeztutako eskaintzaren borondatea baloratuko du, obraren xehetasuneko azterketak eta Lanen Programaketaren zilegitasunak duen garrantzia berezia azpimarratuz.

Atal honetan, jarraian adierazten den moduan puntuatuko da:

- **Gannten diagrama, PERT eta ildo kritikoa.** (5 puntu). 3 zenbakia duen gutunazalean, denboraren eta erabiliko diren giza baliabideen eta baliabide materialen diagramak aurkeztuko dira, proiektuan aurreikusita dauden partidak kontuan izanda. Obraren ildo kritikoa identifikatzea eta epea ez betetzeagatik gerta litekeenaren aurrean Kontratuaren aurreikuspenak. **GANNTen diagrama, aurreikusitako hileroko balorazio ekonomikorekin, honela xehatuta: Egikaritza materiala, Kontratuaren egikaritza, BEZ eta GUZTIRA HILEROKOA, hauek bakar-bakarrik, proposamenaren 2 zenbakiko gutunazalean sartu beharko dira.**
- **Giza baliabideen eta makineriaren deskripzioa.** (5 puntu). 3 zenbakidun gutunazalean, partida bakoitzeko honako hauek xehatuko dira: partida hori osatzen duten eta obra egiten erabiliko diren gizataldeak, baliabide

materialak eta makineria. Honi dagokionean, etekinak murriztu egingo dira, eguraldi txarraren eraginez aplikatuko den koefiziente murriztailearen arabera, edo epealdi barruan egon litezkeen tokiko, herrialdeko edo nazio mailako jai egunen. Egutegi hipotetiko moduan, ulertuko da obra egiteko epea **2009ko uztailaren 20an** hasiko dela. Obra egiteko erabiliko den guztizko pertsona kopurua jarriko da, hilabeteka banatuta. (2 puntu) Obraren berezitasuna kontuan izanda, olanazko estalkia baitu, lehiakideek ebakitzeko sistema automatikoa eta poliesterezko/PVC ehunentzako maiztasun handiko soldatzeko makineria eduki beharko dituzte. **(3 PUNTU)**

- **Ibilbideen proposamena (5 puntu).** 3 zenbakidun gutunazalean obrak egiten ari diren bitartean, pertsonak edota ibilgailuek lokal, atari edo garajeetara sartu/irten ahal izateko, erabiliko dituzten ibilbideak zehaztu beharko dira. Zein kale ixtea aurreikusten den adieraziko da, eta proposamenean kaleak ixtea aurreikusten bada, zenbat denbora iraungo duen itxialdi horrek. Bizilagunei eta orokorrean herritarrei sortuko diren eragozpenen berri emateko jarraituko den komunikazio protokoloa.
- **Kamioien ibilbidea eta materialen pilaketa (5 puntu).** 3 zenbakiko gutunazalean, grafikoen bitartez, obrarako erabiliko diren kamioiek egingo dituzten ibilbideak jasoko dira. Hondeaketa lanak egiteko, soberakinak zabortegira eramateko eta materiala pilatzeko garraioak zein ibilbide egingo duten zehaztu beharko da, eta baita obran erabiliko diren materialen pilaketak egiteko tokiak ere. Plano batean markatuko da, aurkezten den Segurtasun plana kontuan izanda, obrako txabola, botikina e.a. non egongo diren kokatuta.
- **Obran arituko diren teknikarien organigrama (15 puntu).** 3 zenbakiko gutunazalean, obran arituko diren teknikariak baloratuko dira, titulazioa, esperientzia eta ardura izango dira kontuan horretarako. Obra buruak erdi edo goi mailako titulazioa, dedikazio partziala, eta antzeko obretan 10 urte edo gehiagoko esperientzia baldin baditu, **puntu 1**. Obra arduradunak, erabateko dedikazioa, eta antzeko obretan 15 urte edo gehiagoko esperientzia baldin baditu, **puntu 1**. Topografoak erdi edo goi mailako titulazioa, eta antzeko obretan 10 urte edo gehiagoko esperientzia baldin baditu, **puntu 1**. Olanaren instalaziorako Obra Buruak goi mailako ingeniari-titulazioa eta 7 urte baino baxuagoa ez den lan esperientzia badin baditu, 6 puntu. Muntaketarako buruak 10 urte baino gehiagoko esperientzia baldin badu ehuneko estalkiak muntatzen eta erabateko dedikazioa baldin badu **6 puntu**.
- **Obraren eta eraikuntza prozesuaren memoria deskribatzailea (25 puntu)** . 3 zenbakiko gutunazalean obra desberdinen deskripzio xehatua eta eraikuntza prozesua baloratuko dira. Olanaren eta egitura metalikoaren ezaugarri teknikoak, obra egikaritzean edo eraikitze prozesuan egingo diren kontrol eta entseguak, enpresa hornitzaileak eta berme ziurtagiriak definituko dira, proiektua hobetzeko proposatzen diren proposamenak edo alternatibak zeintzuk diren adieraziz. Egitura metaliko eta olanari dagozkion lanak egiteko azpikontratatu diren obraren kaudimen teknikoak, ziurtagiriak eta antzeko lanetan duten esperientzia adieraziz.

21. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio prozedura honetan gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasuna osoa duten pertsona natural nahiz juridikoak parte har dezakete, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatuz, baldin Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 49. artikuluan ezartzen dituen kontratatzeko

debekurik ez badute. Kaudimena 22. klausurako e) hizkian ezartzen denaren arabera egiaztatu eta ebaluatuko da.

Halaber, euren kabuz edo eurak baimendutako pertsona baten ordezkarezekin egiazta dezakete, horretarako nahiko botere emanda. Pertsona juridiko baten ordezkari bertako kideren batek egiaztatuko balu, dokumentu bidez ziurtatu beharko horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, ordezkaria lehen adierazitako ezgaitasun-arrazoien eraginpean egongo da, kontratatzeari dagokionez.

Halaber, enpresariak ere, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa burutzeko eskatzen den enpresa edo lanbide gaitasun frogatua izan beharko dute.

EUSKADIKO Kontzertu Ekonomikoa onartu zuen maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen 44.2.C artikuluan ezartzen denaren arabera, lehiaketan lizitatu ahal izateko, ez da beharrezkoa izango enpresa lizitatuak Gipuzkoako Lurraldeko industria zergadun moduan matrikulatuta egotea. Baina obra esleituko balitzaio, bertan adierazten diren araubide fiskala bete beharko luke.

22. OPROPOSAMENEN AURKEZPENA ETA PARTE HARTZAILEEKIN NEGOZIATZEA

Kontratazio honen espedientea eta hari atxikitako dokumentazio teknikoa Administrazio honen HERRITARRAREN ARRETA-BULEGOAN ikuskatu ahal dira proposamenak aurkezteko epearen barneko astegun guztietan eta udako ordutegian, 08:00etatik 13:00etara.

Enpresa lizitatuak proposamenak goran adierazitako leku eta ordutegi berean aurkeztu ahal dira, edo bestela, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean aurreikusten diren modutan, HAMAHIRU (13) egun naturaleko epearen barnean (**PREMIAZKO IZAPIDEA**), aipatu iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Epealdi horretako azken eguna larunbata, igandea edo jai eguna izango balitz, epea hurrengo astegunean amaituko da.

Alternatibei buruz adierazten denaren kalterik gabe, lizitatuak bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Beste batzuekin aldi baterako elkartuta ere ezingo du proposamenik luzatu aurretik indibidualki egin badu, edo aldi baterako elkarketa batean baino gehiagoan agertzen bada. Printzipio hau hausten bada, automatikoki berak sinatutako proposamen oro baliogabetuko ditu.

Gutunazal bakoitzean proposamena aurkezteko duen enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zein izaeratan egiten duen adierazi beharko da, guztia modu irakurgarrian, hiru gutunazalak ere sinatuta egon beharko dutelarik.

Proposamen horiek goian adierazitako leku eta ordutegi beretan aurkeztu beharko dira HIRU gutunazal itxien bidez eta bertan " GERNIKA PASEALEKUKO AISIALDIKO GUNEA OLANA BATEZ ESTALTZEKO ZIMENDATZE ETA EGITURA LANAK" idatzi beharko da, barruan hurrengo dokumentuok izan beharko dituelarik::

1 GUTUNAZALA: GAITASUNA ETA KAUDIMENA

- a) Parte hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo entitate baten ordezkartzan parte hartuz gero, notario-ahalordea.
- b) Eskaintzailea pertsona juridikoa denean, eraketa edo moldaketa eskritura aurkeztu beharko da, hala badagokio, aplikatu ahal zaion merkataritza legediaren arabera inskribapena eskatu ahal zaionean, Merkataritza-Erregistroan behar bezala inskribatua egotearen agiria eta dagokion identifikazio fiskaleko zenbakiarekin batera. Hala izango ez balitz, jarduteko gaitasunaren egiaztapena, eraketa eskritura edo dokumentuaren bidez, ala, fundazio estatutu edo egintzaren bidez aurkeztuko litzateke, bertan bere jarduera arautzen duten arauak aipatu beharko direlarik, hala badagokio, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta ageri direnak. Enpresariak Europar Batasunaren barneko Estatu bateko kide ez espainiarrak badira, kokaturik dauden Estatuaren legediaren arabera dagokion erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, bestela zinpeko aitortpen edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikagarri diren komunitatezko xedapenen arabera.
- c) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan jasotako egoeraren batek eragiten ez diolako aitortpen sinatua, hala nola, indarrean dauden xedapenek ezartzen dituen Gizarte Segurantzarekikoak eta zerga betebeharrak betetzen dituelako aitortpen sinatua. Azkeneko bi horien gaineko ziurtagiria aurkeztu ezik.
- d) E.J.Z.-n, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, izena eman duelako egiaztagiria. Horretarako alta aurkeztuz, aurtengo ekitaldiari badagokio, edo, beste kasuetan, EJZ-ren azkeneko ordain-agiriari dagokiona. Bietan ere, zerga horretan bajaran eman ez izanari buruzko aitortpena eman beharko da.
- e) Lizitzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten agiriak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 64. artikuluko a hizkian eta 65. artikuluko a c,f, hizkietan adierazten diren modutan.
